


Bost

Xabi Aburruzaga



Bat, bi, hiru, lau... eta bost. Esku betearekin zenbatzeko adina sorkuntza-lan. *Bost*. Zentzumen oro gozarazteko moduko soinuak dakartza bosgarrenak. Pentagramaren arteza bihurrituta, bost puntako izarrari darion soinua. Ongi etorri, *Bost*. Heldutasunean nekaezin dabilen musikariaren bostekoa. Azkenaldiko bizipenei emandako bostekoa. Poztekoa.

Xabi Aburruzaga (Portugalete, 1978) trikitilari eta konpositorearen bosgarren lana da *Bost*. Aurrekoan, *Keltik* (2016) izenekoan, unibertsio keltiarrean bidaia genezan proposatu bazigun Xabik, oraingo honetan barru-barruko bidaia egin du musikariak; azken urteetan bizitako esperientziak oinarri dituzten hausnarketei doinua jarri die, eta horietako batzuei baita hitzak josi ere. Amama-aititen lurretara, Palentziara, umetan egindako bidaia gogoan ditu *Bilbao-La Robla* eta *Waltz for Velilla* piezatan, eta azkenaldian kanpora egindako bidaietatik ekarritako oroitzapenak ere ez dira falta: *Reel Quebecoise*, *Nadirren giltza*, *Non da Palestina*, *Meigas* eta *Zortzi Jauzi*, azken hau +Ameriketan ezagututako euskal diasporari gorazarrea. Iaz lehenengo aita izanik, ezin zen falta semeari beren beregi eskainitako pieza: *Izei*. Omenaldi gehiago ere badira diskoan: pandero-lagun minaren aitari eskainitako *Irumugarrieta 2.0*, bere hastapenetan maisu izan zituen trikitilariek ezagutarazi zituen *88ko Txapelketa*, edo Josu Zubala (Hertzainak) eta lagunekin bizitakoak gogora dakartzan *Mekoleta*. Hauetako askok Aburruzagak ezin hobeto zaindu eta ureztatzen duen trikiti-soinu klasikoa dute oinarri, *Hauspoaren infernutik* piezan bezala. Haatik, lan honetan ere ezin izan dio esparru berriak arakatzeko grinari eutsi; horren erakusle dira Europako iparraldeko paisaia gogorarazten digun *Atxarre*, eta diskoari izena ematen dion *Bost* kantua, bosteko erritmoan osatu duena, Garikoitz Aldekoak proposatutako ideian oinarrituta.

Ohikoa duen gisan, gonbidatu ugari izan ditu Xabi Aburruzagak diskoaren grabaketa lanetan: Yves Lambert Trio (La Bottine Souriente), Jorge Arribas eta Diego Galaz (Fetén Fetén), Anxo Lorenzo eta Tanxugueiras taldeko pandereteirak (Olaia Maneiro, Sabela Maneiro eta Aida Tarrio), Calum Stewart, Argibel Euba eta Iñigo Olazabal, Amaia Oreja, Mikel Markez, Andrea Bidart, Xabier Zeberio, Gorka Urmeneta, Jose Maria Santiago "Motriku", Pilar Aresti eta Ameriketako Euskal Etxeetako ordezkarriak. *Bost* kantutan jarri dituzte hitzak Miren Amurizak, Unai Iturriagak eta Iñaki Aurrekoetxeak. Aburruzagaren taldean dira, bestalde, Aitor Uribarri (panderoa), Koldo Uriarte (teklatuak), Jon Cañaveras (kontrabaxua), Eriz Perez (guitarra akustikoa), Arkaitz Pascuas eta Nagore de las Cuevas (dantzariak). Produkzioan Jose Urrejola lagundu du, diseinua Higinia Garaik egin du eta soinuaz Unai Mimenza arduratu da. Ekoizpenaren zuzendaritza lanak Aburruzagak berak egin ditu.

Barne-bidaia egin du Portugaleteko musikariak eta han-hemengo lagunekin bizitakoak, haurtzaroa, aittasuna, eta nola ez, maitasuna, trikitixari diona, zein baino zein kutunago zaizkion pieza bihurtu ditu eta entzuleari eskaini dio *Bost*, elkarrekin euskal folkaren unibertsoa elikatzen jarraitzeko.

Uno, dos tres, cuatro... y cinco (bost). Tantos trabajos creativos como para contarlos a mano abierta. *Bost*. El quinto trae sonidos como para disfrutar con todos los sentidos. Doblando la rectitud del pentagrama, un sonido que emana de la estrella de cinco puntas. Bienvenido, *Bost*. La mano tendida del incansable músico en su plena madurez. Mano tendida a las vivencias recientes. Motivo de alegría.

Bost es el quinto trabajo del trikitilari y compositor Xabi Aburruza (Portugalete, 1978). Si en el anterior trabajo (*Keltik*) Xabi nos proponía viajar al universo celta, en esta ocasión el músico se adentra en su interior; ha puesto sonido a reflexiones basadas en las experiencias de estos últimos años, tejiendo con letra algunas de ellas. En las piezas *Bilbao-La Robla* y *Waltz for Velilla*, recuerda los viajes realizados en su niñez a la tierra de su abuelo y su abuela, Palencia, y tampoco faltan los recuerdos traídos de los viajes realizados a otras tierras en los últimos tiempos: *Reel Quebecoise*, *Nadirren giltza*, *Meigas* y *Zortzi Jauzi*; éste último, homenaje a la diáspora vasca que conoció en los Estados Unidos. Habiendo sido padre primerizo el año pasado, no podía faltar la pieza dedicada expresamente a su hijo: *Izei*. También hay más homenajes en el disco: el dedicado al padre de su íntimo amigo y pandertero en *Irumugarrieta 2.0*; *88ko Txapelketa*, recordando el campeonato donde se dieron a conocer los trikitilaris que tuvo por maestros en sus inicios; o las vivencias con Josu Zubala (Hertzainak) y amigos en *Mekoleta*. Muchas de estas piezas tienen por base el clásico sonido de la trikitixa que Aburruza cuida y riega inmejorablemente, como en la pieza *Hauspoaren infernutik*. Sin embargo, en este trabajo tampoco ha podido resistirse al ansia de buscar nuevos ámbitos; muestra de ello son *Atxarre*, que nos recuerda a un paisaje nórdico, y el tema que da nombre al disco, el cual ha compuesto en el ritmo de cinco, basándose en la idea propuesta por Garikoitz Aldekoia.

Como acostumbra, Xabi Aburruza ha contado con numerosas colaboraciones en la grabación del disco: Yves Lambert (La Bottine Souriente), Jorge Arribas y Diego Galaz (Fetén Fetén), Anxo Lorenzo y las pandereteiras del grupo Tanxugueiras (Olaia Maneiro, Sabela Maneiro y Aida Tarrio), Calum Stewart, Argibel Euba e Iñigo Olazabal, Amaia Oreja, Mikel Markez, Andrea Bidart, Xabier Zeberio, Gorka Urmeneta, Jose Maria Santiago "Motriku", Pilar Aresti y representantes de los Centros Vascos de América. Miren Amuriza, Unai Iturriaga e Iñaki Aurrekoetxea han escrito las letras de cinco temas. Por otro lado, Aitor Uribarri (pandero), Koldo Uriarte (teclados), Jon Cañaveras (contrabajo), Eriz Perez (guitarra acústica), Arkaitz Pascuas y Nagore de las Cuevas (bailarines), conforman el grupo de Aburruza. En la producción, ha contado con la ayuda de Jose Urrejola, el diseño ha corrido a cargo de Higinia Garai y Unai Mimenza se ha encargado del sonido. El propio Aburruza se ha encargado de la dirección de la producción.

El músico de Portugalete ha realizado un viaje a su interior, a las vivencias con amigos de aquí y de allá, la niñez, la paternidad, y como no, el amor, el que le tiene a la trikitixa; las ha convertido en piezas cada una más querida, y le ha dedicado *Bost* al público, para que juntos sigan alimentando el universo del folk vasco.